- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa (BOE 2003/11/18).
- 38/2003 Errege Dekretua (2006/07/25 BOE), azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzko ekainaren 21eko 887/2006 Lege orokorraren araudia onesten duena.

### **2.- Xedea.**

Deialdi honen xedea da Abanto Zierbena udalerrian enpresa-jarduera sortzen laguntzea. Horretarako, modu aktiboan lagundi nahi da langabeziari aurre egiteko borrokan, enplegua sortuko duten enpresako proiektu berriak abian jartzeko laguntza emanez eta horiek eratzeko zein hasierako inbertsioa egiteko izapideetara bideratutako diru-laguntzak ezarriz.

ABANTO-ZIERBENA ZERBITZUAK, SLk deitu ditu *Abanto Ekintzaileak* izeneko laguntza horiek, Abanto Zierbena udalerrian enpresak sortzea bultzatzeko eta ekintzaileei hasierako oztopoak gainditzen laguntzeko.

Publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioei jarraikiz, eta gardentasunaren parametroen baitan eratu dira oinarri arautzaile hauek, udalerriko ekintzaileen artean ahalik eta hedadura gehiena izan dezaten.

### **3.- Onuradunak.**

Laguntzen onuradunak izan daitezke enpresako ekimenen bat abian jartzen duten pertsona fisikoak edo pertsona juridiko pribatuak eta ondasunen erkidegoak edo Abanto Zierbenan zerga-egoitzak dutenak.

### **4.- Ekintzaileek bete beharreko baldintzak.**

Laguntzen onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Abanto Zierbena udalerrian jarduera ekonomikoren bat abiaraztea 2014ko azaroaren 1etik 2015ko urriaren 31ra bitartean. Epe hori Ogasunaren Erroldan (036 eredu) alta eman den egunean agertzen denari dagokiola ulertuko da.  
Enpresaren establezimendua(edo, halakorik egon ezean, zerga-egoitza) Abanto Zierbena udal-barrutian egotea.
- Enpresa-establezimendua eta helbide fiskala Abanto Zierbena udalerrian egotea. Merkataritz-establezimendutik izan ezean, establezimendu fiskala ezinbestean egotea Abanto Zierbenan.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskataile gisa edo enplegua hobetzeko eskataile gisa inskribatuta egotea, gutxienez Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman aurreko hilabetean.

Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLk antolatutako Enpresak Sortzeko Ikastaroa egin izana, betiere aukera hori badago eta ezinbesteko kasuren bat tarteko ikastaro hori egitea ezinezkoa izan ez bada.

- Abanto Zierbena Toki Garapenerako Agentziarekin Negozio, gidaritza eta aholkularitza plana egin izana.
- Enpresak 10 langile baino gehiago ez izatea.  
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafe bereko jarduerarik egin ez izana jardueran alta eman aurreko urtebetean. Baldintza hori eskatzaileari zein bigarren mailarainoko odolkidetasuna duten edo bizikidetza-unitate bera osatzen duten pertsonei dagokie, belaunaldi-ordezkapena gertatzen den kasuetan salbu.  
Zerga-betekizunak eskatzen dizkien herri-administrazioen aurrean dituzten betebeharra eguneratuta izatea, baita Gizarte Segurantzarekin dituzten betebeharra ere.

Enpresak 12 hilabeteko jarduera izatea eskatuko da.

#### **5.- Laguntzaren zenbatekoa.**

Itzuli beharrik gabeko 1.000 €-ko laguntza ezarri da. Laguntza hori gehienez ere 1.100 €-raino areagotuko da emakumea izanez gero, gizarte- eta zerga-egoitza Abanto Zierbenan duten enpresak abian jartzetik eratorritako gastuak diruz laguntzeko.

Honako hauek diruz lagundu ahal izango dira:

- Negoziorako lokalaren alokairua.
- Negoziorako lokala egokitzeko obrak.
- Jarduera abian dagoen lehenengo urteko hornidurak (argia, ura, telefonoa...).
- Jarduerarekin loturiko ekipamenduak, altzariak, makinak eta tresnak erostea.
- Merkatuaren prospekzio eta azterlanetatik eratorritako gastuak.
- Proiekta abian jartzetik eratorritako gastuak (eratzeko gastuak, erregistroa, markak, patenteak, etab.).
- Komunikazio-, publizitate- eta sustapen-gastuak.
- Webguneak sortzea.
- Jarduerarekin loturiko aseguru-primak (ibilgailuen aseguruak izan ezik).
- Garbiketa- eta mantentze-lanak, enpresa martxan dagoen lehenengo urtean.
- Bulegoko materiala.
- Negozioa abian jarri eta kudeatzearekin lotura zuzena duten zerbitzu profesional independenteak.
- Eramangarriak ez diren informatika-ekipoak (eramangarria izatea behar bezala justifikatu ezean), makina erregistratzaileak, kode-irakurgailuak, STak.
- Ostalaritza-lokaletan, egokitzeko obrak eta terrazako altzariak, indarrean dagoen udal-ordenantzaren arabera.
- Wifi sareak ezartzea, bezeroentzako zerbitzuarekin.
- Merkataritza-errrotulu elebidunak (euskarra/gaztelania).

Gizarte Segurantzarako kotizazioak autonomoen araubide berezian, baita gertakizun arruntengatik ere.

Gastu horiek diruz lagundu ahal izango dira Enpresaren Jarduera Ekonomikoetan alta eman eta gehienez ere 1 urteko epean, eta/edo jarduera hasi aurreko sei hilabeteetan, negozioa abian jartzearekin zuzenean lotuta badaude.

#### **6.- Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.**

Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publikoek edo pribatuek emandako eta kontzeptu berberak diruz laguntzeko balio duten beste diru-laguntza batzuekin.

Programa honetan ezarritako diru-laguntzek bete egingo dute Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 zenbakiko Araudian (EB) ezarritakoa. Araudi hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2006ko abenduaren 28an eta Minimis araupeko laguntzei buruzko EB Ituneko 87. eta 88. artikuluen aplikazioari dagokio. Halaber, diru-laguntzek bete egingo dituzte araudi horretan gerora egiten diren aldaketak. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, Minimisek enpresa jakin batir emandako laguntzak guztira ez du gaindituko 200.000 euroko zenbatekoa 3 zerga ekitaldiren edozein epetan. Muga hori ezarriko da, Minimisen laguntza mota edo lortu nahi den helburua gorabehera. Muga hori gainditzen bada, programa honen arabera emandako laguntza gutxiagotu egingo da; zehazki, gehiegizko zenbatekoari dagokion kopuruan.

Nolanahi ere, diru-laguntzen zenbateko osoak ezin izango du gainditu inola ere, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera zein baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua.

#### **7. Aurrekontuaren erabilgarritasuna, eskaera egiteko epea eta lehentasuna.**

Deialdi honetan aurrekositako diru-laguntzak «ekintzaileentzako ekarpenak» izeneko partidaren kargura finantzatuko dira. Partida hori 2015. urterako aurrekontuaren baitan dago eta, zehazki, 10.000 €-koa da.

Zenbateko hori aldatu egin ahal izango da, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLren Administrazio Kontseiluak hala onesten badu.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Laguntzen eskaerak ebazteko, eskaerak erregistratu zireneko hurrenkera zorrotza hartuko da kontuan, betiere behar bezala beteta badaude eta espedientea osorik badago, eta aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu kredituaren mugaraino.

#### **8. Eskaerak aurkeztea.**

Eskaerak, nahitaezko dokumentazioarekin batera, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLren erregistroan (Bizkaia plaza 3, atzelaldea, 48500-Abanto Zierbena) aurkeztu beharko dira. Herri-administrazioen araubide juridikoari eta administrazio-procedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurrekositako ezarriko da.

Eskaerak aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea dakar.

Enpresak sortzeagatiko eskaerak gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkeztuko dira, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematen denetik aurrera edo hiru hilabeteko epean deialdi honen iragarkia aipatu aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Nolanahi ere, eskaerak aurkezteko epea 2014ko abenduaren 30ean amaituko da.

#### **9. Nahitaezko dokumentazioa.**

Laguntza-eskaerak deialdi honen eranskinean jasotako eskaera-eredu normalizatuan aurkeztuko dira, enpresaren edo erakundearen ordezkariak sinatuta, dokumentu hauekin batera.

- I) Eskatzailea pertsona fisikoa bada: Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Pertsona juridikoen kasuan: Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia, pertsona eskatzaileen Nortasun Agiri Nazionalarekin eta ordezkaritza-botereekin batera.
- m) Pertsona juridikoak badira, erakunde edo enpresa eratzeko eskrituren fotokopia (ondoren izandako aldaketekin) eta dagokion erregistroetako inskripzioa. Berezko nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua gehituko da.
- n) Abanto Zierbena Udaleko Toki Garapenerako Agentziak zuzendutako enpresen bideragarritasun-plana.

- o) Abanto Zierbenako Udaleko Toki Garapenerako Agentziak antolatutako Enpresak sortzeko ikastaroa egin izana egiaztatzen duen ziurtagiria, halabeharrezko eta egiaztatutako kasuren bat tarteko, ikastaro egitea ezinezkoa izan bada salbu.
- p) Izen-estate eta bajen ziurtagiria Ekintza Ekonomikoen gaineko Zergan, Foru Ogasunak emandakoa.
- q) Enpresa edo erakundearen izen-estatearen kopia Gizarte Segurantzan.
- r) Zinpeko aitorpena (eskaera-eredu normalizatua).
  - Aitorpena, adierazten duena laguntzen deialdi honetako oinarriak ezagutu eta onartzen direla.
  - Zinpeko aitorpena, adierazten duena diru-laguntza publikoak itzultzeko edo zehapenak jasotzeko prozesuren batean ez dagoela.
  - Zinpeko aitorpena, adierazten duena erakunde eskatzailea ez dagoela zehatuta zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin eta ez dagoela hartarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat.
  - Zinpeko aitorpena, azaltzen dituena ekintza berbera egiteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako edo horietatik jasotako diru-laguntzak.
  - Zinpeko aitorpena, adierazten duena bete egiten dela Minimis araua, Europako Batzordearen Minimis araupeko laguntzei buruzko 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 zenbakiko Araudian (EB) ezarritakoarekin bat. Araudi hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2006ko abenduaren 28an, eta horren bidez ordezkatu zen 69/2001 Araudia (EB). Halaber, arauaren ondoko berrikuspenak betetzen dituela adierazten da.
- s) Diru-laguntza eskatu duen entitateak bere zerga-betebeharra eguneratuta dituela frogatzen duen Foru Ogasunaren agiria.
- t) Entitateak bere betebeharra eguneratuta dituela frogatzen duen Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren agiria.
- u) Hirugarrenen izen-estatearen dokumentua, erakunde eskatzaileak eta banku-erakundeak sinatuta eta zigilatuta (laguntza helbideratzeko banku-datuen inprimakia – Normalizatutako eskaera-eredua).
- v) Estatuko edo autonomia-erkidegoko kasuan kasuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak igorritako ziurtagiria, bapkide langile guztiak enplegu-eskatzaile gisa edo enplegua hobetzeko eskatzaile gisa inskribatuta daudela egiaztatzen duena.

Eskatzaileak baterako aitorpenean jasotako daturen bat faltsutzen badu, dagokion zehapenerregimena aplikatu ahal izango zaio.

#### **10. Akatsak zuzentzea.**

Diru-laguntzaren eskaerak deialdi honetan eskatutako baldintzak bete ezean, edo eskatutako dokumentazioa eransten ez bada, Herri-administrazioen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzko 30/92 Legeak 71. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 10 egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak eransteko eskatuko zaie interesunei. Era berean, jakinaraziko zaie eskatutakoa egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, eta artxibatu egingo dela inolako izapiderik gabe, legezko testu beraren 42.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Eskaera ez da gauzatutzen joko behar bezala bete arte eta expedientea osorik egon arte. Expedientea osatzeko, aurkeztutako dokumentazioaren aurkezpena erregistratu beharko da, expedientea osatze aldera, dagozkion ondoreetarako.

### **11. Eskaerak aztertzea eta ebaluatzea.**

Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLri dagokio aurkeztutako eskaerak aztertzea eta ebaluatzea.

Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen duen edozein agiri eta/edo informazio osagarri eska dezake, eskaera behar bezala ulertze eta ebaluatze aldera.

Ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko eskaera bakoitza aztertu eta ebaluatutakoan, ebaZen proposamena luzatuko du, eskatutako diru-laguntza emateko edo ez-emateko berariazko erabakiarekin, eta horren zenbatekoa adierazita.

### **12. Laguntza emateko ebaZen.**

Aurreko atalean adierazitako proposamena ikusita, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLren Administrazio Kontseiluak emango du ebaZen.

Herri-administrazioen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak bere 44. artikulan ezartzen duenarekin bat etorri, ebaZen emateko aurreikusi den epea igarotakoan enpresa edota erakunde interesdunari jakinarazpenik egin ez bazaio, eskatutako laguntza ukatu egin dela ulertuko da.

Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLren iragarki-taulan argitaratuko da emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda. Bertan, berariaz jasota geratuko dira gaitzestearen edo ez ematearen arrazoia. Argitaratzeari dagokionez, Diru-laguntza orokorrein buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluari eta Lege horren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikuluari erreparatuko diote.

Onuradun izateko deialdian ezarritako baldintzei dagokienez, berriz, kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu dela eta, kontuan hartu ez diren eskabideen zerrenda ere ebaZen penean jaso beharko da, Diru-laguntzei buruzko araudiaren (887/2006 ED) 63.3 artikulan jasotzen den moduan. Erabaki berri baten bidez, beste diru-laguntza batzuk eman ahal izango dira ezetsitako eskaera horien zerrendako lehentasun-ordenari jarraituz, betiere onuradun batek berariazko uko-egiteagatik askatutako kreditua agortu arte.

Horretarako, berariaz uko egin dela ulertuko da, oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza betetzen ez denean.

### **13. Erakunde onuradunen betebeharrak.**

Laguntza hauen onuradunek honako betebehar hauek izango dituzte:

- a) Abanto Zierbenako Udaleko Toki Garapenerako Agentziak zuzendutako enpresen bideragarritasun-plana egin izana.
- b) Abanto Zierbenako Udaleko Toki Garapenerako Agentziak antolatutako Enpresak sortzeko ikastaroa egin izana, halabeharrezko eta egiaztatutako kasuren bat tarteko, ikastaro egitea ezinezkoa izan bada salbu.
- c) Enpresako jarduerari gutxienez hamabi hilabetez eustea. Hori egiaztatze aldera, onuradunak dokumentuen bidez justifikatu beharko du zerbitzu-kudeatzailearen aurrean betebehar hori bete dela. Hala, diru-laguntza ematea oinarritu zuen alta emandako pertsonari dagozkion hileroko ordainketak egin beharko ditu Gizarte Segurantzako autonomoen erregimenean, alta eman ondorengo hamabigarren hilean, hala eskatzen bazaio.
- d) Onuradun izateko eskatutako baldintzak egiaztatzea eta justifikatzea, zehazki, oinarri hauetan zehazten diren baldintzetan.
- e) Emandako diru-laguntzarekin zerikusia duten datuak eta informazioa ematea, betiere Abanto Zierbenako Udalak hala eskatu badu.
- f) Ez izatea inolako zorrik Abanto Zierbenako Udalean.
- g) Zergen arloan eta Gizarte Segurantzan dituen betebeharrak eguneratuta izatea.

#### **14. Ikuskaritza.**

Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLk diruz lagundutako jarduerei buruz egoki iritzitako ikuskapen eta egiaztapenak egin ditzake, eta enpresa eta erakunde onuradunek eskatutako informazio osagarria eman beharko dute.

#### **15. Diru-laguntza ordaintza.**

Laguntza hau ordainketa bakarrean emango da (% 100), aldez aurretik diruz lagunduko diren gastuei dagozkien jatorrizko fakturen edo fotokopia konpultsatuen bidez justifikatuta, betiere aurreko baldintzak betetzen badira.

Eskatzaileak baterako aitorpenean jasotako daturen bat faltsutzen badu, dagokion zehapenerregimena aplikatu ahal izango zaio.

#### **16. Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.**

Diru-laguntza ematean kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok emakida-ebazpena aldatuko du, betiere arau honetan onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak gordetzen badira. Horretarako, dagokion aldaketa-ebazpena egingo da, eta horrek berriro ere doituko ditu emandako diru-laguntzen zenbatekoak.

#### **17. Diru-laguntzak itzultzea.**

Jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, diru-laguntzak ordaindu zirenez geroztik bidezkoak diren legezko interesekin batera, erakunde onuradunek deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditzute. Baldintzok esleipen-ebazpenean eta aplika daitezkeen gainerako arauetan daude jasota. Hori guztia arau-hauste horren ondorioz sor daitezkeen ekintzetan eragin gabe.

Honako hauek izango dira itzultzeko arrazoia:

- Diru-laguntza ezarritako baldintzak bete gabe lortzea.
- Diru-laguntzaren helburua ez betetzea.
- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.
- Diru-laguntza ematean onuradunari/onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Kontrol-jarduerei uko egitea edo horiek oztopatzea.
- Diru-laguntza gauzatutako jarduera baino handiagoa izatea; kasu horretan, gehiegizko diru-laguntzari dagokion zatia itzuliko da.

#### **18. Ordezkaraubidea.**

Deialdi honetan aurreikusi ez diren kasuetarako, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen Araudia ezarriko dira, baita Herri-administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legea ere.

#### **19. Datu pertsonalak babestea.**

Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLk adierazten du, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin bat etorri, eskatzaileen datu pertsonalek tratamendu automatizatua izan dezaketela eta Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLren informazio-sistemetan eta bere erakunde autonomoetan sartuko direla. Datu horiek udal-kudeaketarako soilik erabiliko dira, eta beste herri-administrazio batzuei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie. Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoa gertatzen denean. Interesdunek datuetarako sarbidea izateko, zuzentzeko, bertan behera uzteko edo aurka egiteko eskubideak izango dituzte, Udalaren informazio- eta erregistro- zerbitzuaren bidez. Laguntzen programan parte hartzeak esan nahi du jakinarazitako datu pertsonalak herri-administrazioei edo Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLrekin lankidetzan ari diren erakundeei eman ahal izango zaizkiela, eta zabalkunde orokorreko bitartekoetan ere argitara daitezkeela.



**20. Baliabide ekonomikoak.**

Laguntza horiek osatzen dituzten funtsak, helburu honetarako, 2015ko aurrekontuaren erabilgarritasunera mugatuta daude. Zehazki, 10.000 eurokoak dira.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak «ekintzaileentzako ekarpenak» izeneko partidaren kargura finantzatuko dira. Partida hori 2014. urterako aurrekontuaren baitan dago.

**21. Azken xedapena.**

1. Laguntza-deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren bihamarenean hasiko da indarraldia.
2. Enpresa edo erakunde interesdunek eskaera aurkezteak oinarriak erabat onartzea dakar.

Abanto Zierbenan, 2015ko urtarrilaren 22an.

ABANTO-ZIERBENA ZERBITZUAK, SLko presidentea

### I. ERANSKINA

#### ENPRESA SORTU BERRIENTZAKO ABANTO EKINTZAILEAK 2015 LAGUNTZAK ESKATZEKO ESKABIDEAREN EREDU OFIZIALA

<b>Izen-abizenak:</b>		<b>NAN/AIZ:</b>
<b>Noren ordezkari gisa (enpresaren edo erakundearen izen soziala):</b>		
<b>Izen komertziala:</b>		<b>IFK/IFZ</b>
<b>Gizarte egoitza, zerga-egoitza edo lantokia:</b>		
<b>Udalerria:</b>	<b>Posta- kodea:</b>	<b>Probintzia:</b>
<b>Telefono-zenbakia:</b>	<b>Posta elektronikoa:</b>	<b>Web orria:</b>
<b>Zein jarduera egiten duen enpresak:</b>	<b>JEZ:</b>	<b>Altaren data:</b>

Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLk onetsitako laguntzen deialdia dela eta, ideia ekintzaileak babesteko eta enplegua sortzen edota hobetzen zein enpresen egitura dinamizatzen lagunduko duten aukera ekonomiko berriak atzemateko,

#### HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT

7. Enpresa berrien sorerra sustatzea xede duten laguntzen deialdi honetan parte hartzeko beharrezko baldintzak ezartzen dituzten oinarriak ezagutu eta onartzen ditut.
8. Egiaztatzen dut enpresak eskabidearen inprimakian emandako datuak egiazkoak direla.
9. Eskatutako diru-laguntza bat dator aipatu laguntzen oinarrieta eskatutako baldintzakin.
10. Laguntza hau eskatzeko zehaztutako dokumentazio guztia erantsi da.
11. Jasotako diru-laguntzaren kargura eginiko gastu eta ordainketen ziurtagiriak, hala badagokio dokumentu elektronikoak barne, erakunde onuradun horretan egongo dira 2018. urtera arte, dagokion administrazioak egiaztatze- eta kontrol-jarduerak egin ahal izateko.
12. Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat etorriz, onartu egiten dut nire datuak Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLk laguntzak kudeatzeko sortutako fitxategian egotea. Datuotara sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko edo aurka egiteko eskubideak izango dut, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, SLko bulegoaren bidez.

Hori guztia dela eta, **ABANTO-ZIERBENA ZERBITZUAK, SLRi HONAKO HAU ESKATZEN DIOT:**

Nire eskaera onartzea eta dagokidan diru-laguntza ematea, Enpresa sortu berrientzako laguntzen deialdiko oinarriekin bat etorriz.

Abanto Zierbenan, 2014ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_ (e)(a)n

Enpresaren sinadura eta zigidua

**II. ERANSKINA  
ZINPEKO AITORPENA**

Izen-abizenak:	NAN/AIZ:
<b>Noren ordezkari gisa (enpresaren edo erakundearen izen soziala):</b>	
Izen komertziala:	IFK/IFZ

**HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:**

- Abanto Zierbenan enpresa berrien sorrera sustatzeko laguntzen deialdi honetako oinarriak ezagutu eta onartzen ditut.
- Ordezkatzen dudan enpresak Abanto Zierbenan du zerga-egoitza, egoitza soziala edo lantokia.
- Ez nago diru-laguntza publikoak itzultzeo edo zehapeneko prozesu batean sartuta.
- Ez nago zehatuta zigor eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin eta ez nago horretarako ezgaitzen nauen legezko debekuen eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuen barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorri.
- Gizarte Segurantzari dagozkion betebeharra eguneratuta ditut.
- Minimis araua betetzen dut, Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudiak (EB) ezarritakoarekin bat. Araudi hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2006ko abenduaren 28an, eta horren bidez ordezkatu zen 69/2001 Araudia (EB). Halaber, arauaren ondoko berrikuspenak betetzen dituela adierazten dut.
- Laguntzaren eskabide honetaz gain, honako organismo publiko edo pribatu hauen laguntzak eskatu edo jaso ditut, xede bererako:

Eskaera-data	Erakundea	Programa	Zenbateko osoa	Laguntzaren zenbatekoa

- Eskabidean aurkeztutako dokumentuak eta datuak egiazkoak dira.
- Deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dira.
- Kontratatutako pertsonak ez du bigarren mailarainoko (hori barne) ezkontza-, ondorengo- edo ahaidetasun-harremanik enpresariarekin, enpresaren kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo soziitatearen itxura juridikoan eragiten duten enpresen administrazio-organoetako kideekin, ezta azken horiek sor daitezkeenekin ere.
- Halaber, hitzematen dut erakunde honi idatziz emango diodala beste erakunde publiko edo pribatu batzuen aurrean kontratazio honetarako eska ditzaketen bestelako diru-laguntzen berri.

Eta horrela jasota gera dadin eta ondore egokiak izan ditzan, honako hau sinatzen dut  
Abanto Zierbenan, bi mila eta \_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_(e)(a)n.

*Enpresaren edo erakundearen sinadura eta zigilua*



Abanto - Zierbena  
ZERBITZUAK, S.L.

**III. ERANSKINA  
HARTZEKODUNEN FITXA**

**HIRUGARRENAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK (A)**

Izen-abizenak / Izen soziala:	NAN/AIZ:
-------------------------------	----------

**HELBIDERATZEKO DATUAK (B)**

Helbidea:		
Udalerrria:	Posta-kodea:	Probintzia:

**BANKUKO DATUAK (C)**

Kontuaren titularra:		
Bankua edo kutxa:		
Sukurtsala:		

IBAN KODEA				ERAKUNDEAREN KODEA				SUK. KODEA				K.Z.				KONTUARENZENBAKIA											

Abanto Zierbenan, 201\_\_(e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_(e)(a)n

Banku erakundearen sinadura eta zigidua

Enpresaren sinadura eta zigidua